


Astekaria

BARRE

elgoi



Guraso gazteak



KIA

ezberdina da, gaztea, ederra eta gidatzeko atsegina. Edozein errepidetarako autoa. Duen gauzarik onena? Prestazioak, estabilitatea eta erabilgarritasuna, dudarik gabe. Ez daukazu ezerri ezetz



EITEK

Informatika

PacianoArosa, 1
Tel-Fax: (943) 20 30 90
20600 EIBAR

Ordenagailu portatila

Ordenagailuak

Inpresorak

Konponketa eta mantenua

INTERNET banatzailea

Neurrira egindako
software-a

ERAKUSKETA
IRAUNKORRA

PREVIEW monitorean
banatzaile bakarra



EPSON Stylus COLOR 200



EPSON Stylus COLOR 500

EIBAR

OSASUNDEGIA

Urkizu pasealekua, 11.
(Orbeako dorrea, lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04
EIBAR

- | | |
|----------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Barne medizina |
| 2- Kardiologia | 10- Ortodontzia |
| 3- Zirugia | 11- Otorrinolaringologia |
| 4- Dermatologia | 12- Pediatria |
| 5- Dietetika eta Nutrizioa | 13- Psikiatria |
| 6- Foniatria | 14- Radiologia |
| 7- Ginekologia | 15- Traumatologia |
| 8- Laborategia | 16- Urologia |

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.800 ale

LEGE GORDAILUA:

SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Oroitzapenak

Aurten nire urteak Herrigainen ospatzeaz gain, badut beste ospakizun bat ere: nire bizitzaren erdia Gaztelun eta beste erdia Elgoibarraren daramadala. Honek, udazkeneko hego haize eta kolore melankolikoek lagunduta beharbada, makina bat oroitzapen dakarzkid.

Lehengoan esaten nion orduko lagun Arantxari: "Akordatzeko aiz aurreneko aldiz Ertotzeko ganban telebixioa ikusi genduneko? Amar xentimo botatzen genizkiñan eltxetxoan gastuetan laguntzeko. Ao zabalik eoten gintxonan pelikulak eta gaiñontzekoak ikusten.

Eta gramolaren musikakin, altabozak kanpoan jarri eta dantzan nola ibiltzen giñen? Gabonetako karrozak, antzerkiak, gaiñea ik beti neska politten lana eitte unan eta nik etxeokandere edo neskamearena, bigote ta guzti. Ez zan parririk eñ, egia dun eta. Au dena apaiz gazteari esker eitten geniñan.

Ura unan konfesatu bearra, dena unan pekatu. Galtzak ere ezin genizkiñan jantzi. Bazekiñat garo biltzea juteko anaiarenak jazen nittula anak ebakiz ez betetzeko. Eta manga gabeko niki gorri ue? Sutara bota niñan apaizaren sermoi partikularra aittu eta geo. Bai, neska, ez unan giro orduan. Goatze aiz ze izen zun maixtrak? Bai, Margarita González. An eoten gintxonan erriko ume guztiak gela berdiñean. Gure entziklopediarekin ikasi genizkiñan ikastekoak. Beatzak ere askotan izaten genizkiñan regla azpian euskeraz itzeitteatik. Erdera ere hantxe aittuko geniñan lenbiziko aldiz segurasko.

Itzulean ere naiko lan izaten geniñan,

arrastoa ibili bear eta idiak edo beiak ezin zuzen eman; ango gora ta ango beera oiua. Zokorkazo batzuk ere jasotakoa naun, atzekoa berotzen zanean: danba! Izan ere, zenbat soro zeonan orduan, orain belaze zeuden geienak, baina orduan, artoa, arbie, babarrona, erremolatxa, patata... beti zeonan zeoze. Goldea ez bazan, arrea edo besarea, geo jakine, atxurre artu ta jorratzea.


Baatza ere zai eote unan, aza, porru, letxu, baatxuri, tipule... Onena oiloak eunero jartzen zituen arrautzek jasotzea, batzutan bat botatzen niñan su gaiñean zegon eltzeraz eta isilean jaten niñan eositakoan. Amak esaten ziñan arrautza osorik ez zula jan urtetan, etzeolako eo umeen bat beti ondoan zulako; beatziz izanda ez dun arritzekoa. Nik meriendan txokolate ontza bat izaten niñan, txupatzen jaten niñan geo irauteko. Goserik ez geniñan pasatzen, baino inbidi dexente bai. Akordatzeko naun muñeka bat (eta bakarria) Tolosatik attek ekarri zianean. Juizio batean eon nitxonan piñudi bat erre zitzaigulako eta an pasatuko nerbioen ordaiñ izan zala uste diñat.

Kanpotik etortzen zienei askotan entzuten zitzaianen -ze erri politte dan!- esaten, eta ni entenditu ezinik gelditzen nitxonan. Gaur aitortu bearra zaukenat arrazoi zutela. Gaiñera orain askoz polittagoa zeon baserri denak ain dotore daudenez. Bixta ere izugarria dun, Aralar, Aizkorri eta Larte menditik Donostia-ko itsasoa ikus ziteken egun garbia danean.

Osaba apaiza, Aita Gaztelu, udaero etortze unan belar onduaren usaia artzea, -ze gozoa!- esaten ziñan aspertu eziñik!"

Ane Goikoetxea

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



▲ “Nafarroa Plazako Garagartza erlojudendaren alboan dagoen **zakarrontzia apurtuta dago** aspalditik. Noiz arte egon behar du horrela? Agintariak ez al dira gainontzeko herritarrak bezala kalean ibiltzen eta gauza horiek ikusten?”

▲ “Haur batzuk gara eta Plaza Handian futboleak ari garenean, batzuetan **nahigabe andreren bat jotzen dugu** baloiarekin. Andre hauek ez digute barkatzen eta **baloia kentzen digute**”. Barkatzen ere jakin egin behar dela aipatu digute haurrek.

▲ Haur batzuk etorri dira King-Kongeko zubitik **Urasandi auzora pasatzeko zebra-pasoan semaforoak** behar direla esateko. Jendea asko ibiltzen omen da eta trafikoa ere handia da.

▲ **Ikastolako 6. mailako ikasleak etorri dira BARREN txalotzera.** Aurreko astean BARRENen egon ziren astekaria nola egiten den ikusten eta oso gustura irten omen ziren. Orain ba omen dakite astero jasotzen duten aldizkaria nola egiten dugun.

HIESaren Astearen balorazioa

ERROTATXOK, Elgoibarren HIESaren astea burutu ondoren balorazioa plazaratu nahi du. Orokorrean, antolatutako ekintzek izan duten erantzuna eta partaidetza positibotzat jotzen dugu, GIBdunekiko elkartasunaren adierazpena baita eta, bestalde, gure taldearen lanari bultzada ematen zaiolako.

Hala ere, hitzaldietara partaidetza urria, bestetan baino txikiagoa dela antzeman dugu, hurrengoetan irtenbideak bilatzen saiatuko garelarik.

Horrez gain, HIESari buruzko hausnarketa guztiz beharrezkoa dela deritzogu. Gaia ezaguna eta nahiko informazio izan arren, ez dugu uste agorturik dagoenik, baizik eta eguneroko lana oraindik ezinbestekoa dela.

Bukatzeko, ekintzetara hurbildu direnei eta bertan parte hartu dutenei gure eskerrak eman nahi genizkieke, horri esker Errotatxok bere lana burutzen jarrai baitezake.

ERROTATXO Drogomenpekotasunen Prebentziorako Elkartea

Soldaduzkari ez

Asteazkenean, hilak 13, Elgoibarko IMH eta Bernardo Ezenarro (Meka) ikastetxeko ikasleok greba eta manifa arrakastatsua egin genuen soldaduzkarako zozketa eta NATOren egitura militarrean sartzearen aurka. Izan ere, urtero bezala, aurten ere 190.000 gazte inguru zozketatuko gaituzte 1997an zerbitzu militarra egin dezagun.

Beste alde batetik, Elgoibarko Talde Antimilitaristari egun zehatz honetan hartu duen jarrera pasiboa aurpegiratu nahi diogu.

IMH eta Mekako ikasle talde bat

170. zenbakiko Berbetan atalean, Pachi Pagolaren ahotan jarri genituen hitzak nahasgarri gertatu dira. Pachik ez zuen koartelik ipintzeko eskatzen, koartela zegoen tokian iturri bat eta sare garaigo bat jartzea baizik.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Vicenta Monjek ekarri digu aste honetako erretratua. Elgoibartar kuadrila hau Gernikako Juntetxera joan zen batean atera zuten argazkia. Zein urtetakoa den ez daki Vicentak, baina argi dago ez dela atzokoa. Erretratua ateratzeko Gernikako Juntetxearen aurrealdea aukeratu zuten.

Hona hemen agertzen direnen izen-abizenak:

Atzeko ilaran, ezkerretik eskuinera: **Jose Jauregi,**

Arturo Zubiaurre, Alberto Ezenarro (†), Jose Mari Gabilondo (†), Gernikako Juntetxeko atezaina, Luis Jauregi, Jose Gabilondo eta Eulogio Oria (†).

Bigarren ilaran: **Pedro García (†), Eugenio Gabilondo (†), Ricardo Suarez, Cipri Gernika eta Juanito Arrieta.**

Hirugarren ilaran: **Sebastian Mendaro, Prudencio Juaristi (†), Pedro Arosa, Antonio Gabilondo (†), Eduardo Elorza eta Pepe Suarez (†).**

Aurreko ilaran: **Jose Mari Monje (†), Santi Zuaubiskar (†), Jesus itziartarra (†), Imanol Leiaristi (†) eta Jose Luis "Ospas" (†).**



Azaroaren 10ean, 84 urte zituela, hil zen
JOSE GURRUTXAGA URBIETA "ANGOITXI"ren sendiak,
bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

Era berean, hilaren 18tik 22ra Madalako elizan
ERROSARIOA izango dela jakinarazi nahi dizuegu.



Gazte eta guraso izatea

Gero eta informazio gehiago dago alor guztietan, baita sexuari dagokionean ere. Garai batean gurasoek Jaungoikoak bidalitako seme-alaba guztiak izaten zituzten. Gero, antisorgailuak asmatu ziren eta, jaiotze tasaren kontrola etorri zen horrekin batera. Bikoteek gero eta beranduago erabakitzen dute guraso izatea. Garai batean 23 urterekin ezkondu eta 24rekin haur bat izatea gauzarik normalena zen. Gaur egun, berriz, 30 urte inguruan koka dezakegu batzbestekoa. Halere, oraindik orain, badira haurrak oso gazte izaten dituztenak. Batzuek hala erabaki dutelako, besteek hala tokatu zaielako. Gaurkoan hiru bikote ditugu gure artean, hiru guraso gazte.

Ana Maria Martin elgoibartarra eta Antonio Rodriguez bergararra orain 8 urte ezagutu ziren. Gaur egun 23 urte ditu Ana Mariak eta 26 Antonio Rodriguezek.

Biei betidanik asko gustatu izan zaizkie umeak eta Ana Mariak oso garbi zeukan berak lehenbailehen izan nahi zituela. Horrela bada, 19 urterekin, haurdun geratu zen, "bila joan ginen". Berehala ezkondu eta bizitza berri bati eman zioten hasiera, Antonioren gurasoan etxean lehenik, eta alokatutako etxe batean orain. Baina, "8 hilabetera abortoa izan nuen". Kolpe gogorra izan zen. Urtebetez zain egoteko aholkatu zioten medikuek Ana Mariari, "baina nik ez nuen horrenbeste denbora zain egoterik nahi eta 7 hilabetera geratu nintzen berriz haurdun". Orain bi urteko mutiko bat dute, Andoni.

Etxean ez zuten inolako arazorik izan, "alderantziz, ahal zuten guztian lagundu ziguten", esan digu Antoniok. Bizitza aldatu zaiela onartzen dute, "dena dela, ezkondu aurretik ere ez ginen asko ateratzen. Beti izan gara bikote lasaia, horregatik guretzat bizimodu honek ez du inolako sakrifizioirik suposatu", azaldu digu Ana Mariak. Hori bai, nahi eta nahi ez, lagun taldea

aldatu egiten da, Antoniok kontatu digunez, "orain ez gara horrenbeste ateratzen solteroekin, haiena beste mobida bat da eta". Elkarrizketei dagokienean, "egia da gairik printzipalena semeak direla, hau edo hori egiten ikasi duela, gaixorik egon dela... Eta askoz errazagoa da zure egoera berean daudenekin komunikatzea".

Hain gazte guraso izateak alde onak ere baditu. Esate baterako, Antonioren iritziz, "gazteak garenez, gure semea haunditzen denean gazte izango gara oraindik eta aukera izango dugu orain ezin dugunaz disfrutatze".

Antonio mezularia da eta Ana Maria oraingoz langabezian dago. Beste gauza askoren artean, arduratsuegok izaten ikasi dute, "diruari dagokionean, esate baterako. Lehen irabazitako dena zuretzat zen. Orain, bikotea izateaz gain, haur bat ere badaukagu eta sinestezi-na da zenbateko gastua dakarren horrek!", adierazi du Antoniok. Ana Mariaren hitzetan, "orain konturatzen naiz ama izatea zer den. Lehen nire amari askotan erantzun txarrak ematen nizekion, ez nion kasurik egiten... Gaur egun Andonik horrelako zerbait egingo balit... Askotan oso zaila egiten zaigu berarekin haserratzea. Zigortzen badugu ere,

pena aurpegia jarri, muxu bat eskatu eta urtu egiten gara". Aurrera begira, beste umeren bat izateko asmoa dute, "berandu baino lehen gainera", aitortu du Ana Mariak. Biek dute argi sekula ez direla damutu izan hain azkar ezkondu eta haur bat izateaz, "guk aukeratu genuen eta pozik bizi gara".

Bost hilabetera esan zion amari

Serafin Martinek eta Marisol Suarezek 22 urte dituzte. Duela 3 urte ezagutu zuten elkar eta, orain dela bi haurdun geratu zen Marisol, "neurriak hartu genituen baina kale egin zuten. Egun batetik bestera, hilerokoa ez zitzaidala jaisten eta arduratzen hasi ginen. Analiak egin eta positiboa eman zuten. Haurdun nengoen". Ez zen erraza izan, ez Marisolentzat ez eta Serafinentzat ere. Marisolek kontatu digunez, "hasieran ez dakizu zer egin, ez duzu zuri gertatzerik espero, egoera ekonomikoa ere ez zen onena...". Irtenbiderik onena zein izan zitekeen erabakitzen nahikoa lan izan zuten, "abortoaz ere hitzegin genuen baina ez geneukan oso garbi", esan digu Serafinek. Azkenean, nola edo hala, egoerari aurre egin eta haurra izatea erabaki zuten. Gaur egun urtebeteko neskatxo bat dute, Kristina. Marisolek amari bost hilabe-

tera esan zion, "beldur nintzen eta ahal nuen beste atzeratu nuen. Baina, amak oso arraroa nengoela igartzen ninduen, sabela ere gero eta nabarmenagoa zen... Gero, uste baino hobeto hartu zuen". Hirukotea orain arte Marisol en amaren etxean egon da bizitzen eta orain gutxi errentan hartu dute etxe bat, "orain hobeto, intimitate gehiago daukazu, independentzia...". Ez daude ezkontuta eta momentuz ez dute ezkontzeko asmorik.

Erditzea aurreratu egin zitzaion, "ia hilabete lehenago jaio zen eta nahiko erditze luzea izan zen. Askok kostatu zitzaion dilatatzea hasieran eta gero, 3 zm.tik 9ra berehala jarri nintzen", kontatu digu Marisolek. Serafinek ez zuen ikusi bere alabaren jaiotza, "urduri nengoen eta ez zidaten sartzen utzi".

Marisolentzat egia da bizitza erabat aldatzen dizula, "baina gero Kristina bezalako gauza polita ikusten duzunean, pasatako momentu txarrak ahaztu egiten zaizkizu", aitortu du Serafinek. Gainera, "orain ez dut lehen beste gogo izaten kalera atera eta juergan egoteko. Nahiago dut lasai ibiltzea nire alabarekin", esan du Marisolek. Aurrerago beste umeren bat izango dutela diote, "baina presarik gabe!".


Haurdun zegoela ezin sinestu

Carlos Jorgek 29 urte ditu eta Tere Muñozek 24. Orain dela 7 urte ateratzen hasi eta hiru hilabetera elkarrekin bizitzera joan ziren. Nahi gabe haurdun geratu zen Tere 19 urte besterik ez zituela, "lur jota geratu nintzen". Halere, ordurako elkarrekin bizitzea laguntza bat izan zen. Dena dela, erabakia Tereren esku utzi zuten, "bera oso gaztea zen. Nik argi utzi nion edozer eraba-



kita ere bere alde egongo nintzela". Eta haurdunaldiarekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Terek adierazi digunez, "hasieran oso gaizki pasatu nuen. Ez nuen loditzerik nahi. Lehenengo hilabeteetan pisua galdu egin nuen. Ez nuen sinesten haurdun nengoenik. Umea jaio zenean ere, kostatu egin zitzaidan". Mutil bat izan zuten, Alex.

Terek bizitza asko aldatu zaiola garbi dauka, "gainera, Carlosek, duen adinagatik, bizitza lasaiagoa nahi zuen, familia bat. Ni oraindik gaueko giroa, lagunak, juergak... horien guztien egarri nintzen eta ume batek asko mugatzen zaitu". Halere, Carlosek esan duenez, "batzuetan Tere kalera ateratzen da lagunekin eta ni etxean geratzen naiz Alexekin". Umeak amari Tere deitzen dio, "ez diot sekula ama deitzen utzi. Beharbada oraindik ere ez dudalako nere burua amatxo bezala ikusten. Hori bai, triste edo mimoso dagoenean amatxo esaten dit". Carlos, aldiz, aita da, "asko gustatzen zait hitza". Carlos garraiolaria da eta Tere kamarera, "baina lana utzi egin behar izan nuen haurdun geratzean". Hasieran errentan bizi ziren arren, orain etxebizitza propioa dute, "guk garbi genuen ez genuela inoren gurasoekin bizitzerik nahi. Independentzia nahi genuen, gure bizitza nahi genuen", dio Carlosek.

Alexek 4 urte bakarrik dituen arren, Tere eta Carlos hasi dira beraien semearen etorkizunaz arduratzen, "askotan desiatu izan dugu Guass-a itxitzea!", kontatu digu Terek. "Bere izakera izan dezan hezi behar dugu. Gure helburua, etorkizunean Alex pertsona bat izatea da, langilea, bere izaera propioarekin, beste inoren menpe egon gabe, berak har ditzala erabakiak".



Goitik behera: Antonio, Ana Mari eta Andoni. Mari Sol, Serafin eta Kristina. Eta Carlos, Tere eta Alex.



Aparkaldi mugatua

Duela hiru urte, datorren 26an hain zuzen ere, BARREN aste-kariaren 41. zenbakian, honelako galdera egin zidaten: “aparkaleku nahikoa al dago Elgoibarren?”. Orduan eman nituen arrazoiek tente diraute oraindik. “Herria biziezinezkoa jarri zaigu autoa dugunon portararengatik, autoaren erabilera ezbaian jartzen ez dugulako”.

Elgoibarren, edozertarako herri barrura autoarekin joateko joera dugu, gauza gehienak eskura dauden arren. Arrazoi honegatik askotan ikustera ohitu gara autoak bigarren ilaran, espaloi gainean edo era askotan aparkatuta.

Hau adierazteko zenbait datu: Plaza Txikian (iturri aurea eta Aita Agirre plaza) eta P. Migel Urruzuno kaleen artean 135 autorentzako aparkalekua dago, hauetatik %75a aste osoan aparkalekutik mugitu egiten ere ez direlarik.

Bestalde, inguru horretara sartzen den auto kopurua asteke edozein egunetan hauxe da:

- Goiz partetik, 9etatik 13ak arte, 90 auto orduko, 360 auto guztira.

- Arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean, 95 auto orduko, 190 denera.


Datu hauekin eta irtenbidea aurkitu beharra zegoela ikusita, honetan aritzen den enpresa bati azterketa bat egiteko eskatu genion. Arazo honen konponketak bi pauso garrantzitsu dauzka. Lehen, aparkaleku kopurua zehaztu (arazoa dagoen gunekoa) eta bigarrena, hauek erregulatzea.

Erregulatzeke orduan, kontuan izan behar da zenbait gidariri ohitura batzuk kendu egin behar zaizkiola, hau da, herri barruan aparkatzeko asmoa burutik kendu egin behar zaio, horretarako denbora mugatzea eta dirua ordaindu behar izateak erabiltzen dira tresna eraginkor modura.

Herri barrura datorrenari lekua eskaini eta herri barruan bizi denari irtenbidea eman, hauen bien arteko orekan dago gakoa. Oreka hau lortzeko oraindik gehiago sakondu beharrean aurkitzen gara eta horretarako lehen pausoak ere ematen hasiak gara. Real Automovil Clubarekin (gidarien

elkartea) harremanak izan ditugu. Gure asmoen berri eman ondoren, aurrerantzean elkarlanean arituko gara. Txankakua, herriko dendarien elkartearekin ere, izan ditugu lehen harremanak.

Aparkaleku mugatuen zerbitzu berria



Javier Oñederra
UDALTZAINBURUA

kale hauetan jartzeko proposamena dago: Aita Agirre Plazan, Pedro Migel Urruzuno kalean, Trenbide kalean (S. Inazio kaleko bidegurutzetik B. Ezenarro kalerainoko tartean), San Inazio kalean, Ubitarte Plazan, Antonio Arrillaga kalean eta Santa Ana kalean. Batzbestek 300 aparkaleku eskas ikutuko ditu.

Honen ordutegia 9,30-13,30ak arte eta 16,30-20,00ak arte astelehenetik ostiralera bitartean izango da eta larunbatetan 9,30etatik 13,30ak arte jaiegunetan izan ezik. Aparkatu, berriz, ordu terdiko denboraz gehiezin. Aparkaldi mugatu hauek arautzeko Ordenantza argitaratu egin behar da eta Udal Plenoan izango da hori.

Honelako ekintza martxan jarri izan den lekuetan, bi hobekuntza nabarmentzen dira zuzenean: bata, gaizki aparkatutako autoen kopurua jaitsi egiten dela eta bestea, zaratak eta keak gutxitzea eta oinezkoentzako erraztasun gehiago.

Gogoratu ambulategi aurrean hutsik zegoen Alkortako tailerrak 65 autorentzako lekua duela. San Bartolomeetarako prestatu zuen Udalak eta gaur egun 5 autok baino gehiagok ez du bertan aparkatzen. Santa Ana kalean, Goiko Errotako aparkalekua ere apenas erabiltzen den egun osoan zehar.



Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 beheka. Tel.74 28 74 - 74 05 70

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome, 6 / B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

Zer deritzozu OTA jartzeari?



FLORENTINO SALAGRE
30 urte, garraiolaria

Ez dut uste horrenbeste arazo dagoenik eta hala balitz ere, ez da irtenbidea. Deban lehen zeuden arazo berdinak daude. Ni garraiolaria naiz eta sekula ez dut arazorik izan.



LOURDES URANGA
36 urte, dendaria

Badakit arazoak daudela aparkalekuekin baina irtenbidea ez da OTA. Hiritarrok nahikoa zerga ordaintzen ditugu eta beste bat jartzea...



JESUS GUERRA
54 urte, ajustatzailea

Nere ikuspuntutik ez da irtenbiderik onena. Ura-sandin bizi naiz eta autoan askotan jaisten naiz kalera. Arazoa badago baina irtenbiderik onena ez da OTA jartzea.




MARI JOSE AZPIAZU
29 urte, ileapaintzailea

Kanpoan bizi naiz eta egia da batzuetan arazoak izaten ditudala baina ez dut uste irtenbidea OTA denik, inondik inora. Aparkaleku gehiago ipini beharko lirateke.



NIEVES RABANCHO
41 urte, etxeoandrea

Oso gaizki iruditzen zait. Aparkalekuekin arazoa dago baina nik uste dut pertsonen ohiturak aldatu behar direla eta kotxea gutxiago erabili beharko genukeela.



PEDRO OSORO
50 urte, dendaria

Ezjata ondo iruditzen. Ez dot uste Elgoibarren hainbeste problema dauanik aparkatzeko eta gainera, beste inpuesto bat ordaintzia...



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte
BARREN astekariko maketatzaile lanpostua

MAKETATZAILE bat behar da

ESKATZEN DA
MACI NTOSH erako QuarkXPress eta
Photoshop programen ezagupena

ESKAINTZEN DA
Lan kontratua

Informazio gehiago: (943) 74 16 26 (Imanol)

Interesatuok bidali kurrikulum-ak azaroaren 30a baino lehen helbide honetara:

■ Ipuin kontalaria Udal Liburutegian

Haurren artean irakurtzeko zaletasuna pizteko ekintzen barruan, Udal Liburutegiak ipuin kontalari baten saioa antolatu du datorren asteazkenerako, hilak 20. Arratsaldeko 5,30etatik aurrera Emeren Gelbenzuk 6 urtetik 8ra bitarteko haurrei zuzenduriko ipuinak kontatuko ditu.

■ “Turkiatik Birmaniara bizikletaz” hitzaldia

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitateak antolatuta eta Kutxa Fundazioaren eskutik, Amaia Elozegi eta Esther Mugerzak urtebetean Asia osoan zehar bizikleta gainean egindako bidaiaari buruzko diapositiba emanaldia izango da datorren ostegunean, hilak 21. “Bi emakume Turkiatik Birmaniara bizikletan” izenburua darman emanaldian Asiako hainbat herrialdetako ezaugarriak ikusi ahal izango dira, Kurdistango gerratea, Indiako izpiritualitatea, Irango txoko zoragarriak edo Txinako infernua. Iharduera Udal Euskaltegiko ikasle-entzat den arren, interesatu guztiek joateko aukera dute. Arratsaldeko 5etan hasiko da saioa.

■ AEK eguneko zozketa

AEK Egunean egindako zozketan ez da elgoibartarrik sarituta atera. Hong-Kong-era bidaiaren irabazlea Xabier Macho izan da (00.923) eta Opel Astrarenena Izaskun Insausti (29.154). AEKk zozketan parte hartu duten guztiei eskerrak eman eta sarituei zorionak luzatu nahi dizkie.

■ Antimilien manifestazioa

Asteazkenean Espainiako estatua NATOren egitura militarren sartu zela ikusita eta gaur, hilak 15, gazteek zerbitzu militarra egin dezaten zozketa egin dela kontua hartuta, Elgoibarko Talde Antimilitaristak bihar, hilak 16, Arrasaten egingo den bailarako manifestaziorako deia luzatu nahi du. Arratsaldeko 6etan Plaza Handian elkartu eta autoetan joango dira.



Errotatxok antolatuta, HIESaz hildakoei egindako omenaldia eta giza-katea ditugu argazkietan. Eguraldiak euriari eutsi zion eta ateri egon zen ekitaldiak ospatu ziren bitartean. Eguerdiko ordu bata erdietan hasi zen omenaldia. Txalaparta, aureskua eta bertso saioaren ostean, herriko kaleak zeharkatu zituzten 400 bat lagunek eskutik oratuta, HIESa dutenekiko elkertasuna adieraziz.



Ikastolako 6. mailako 45 ikasle BARREnera bisitan etorri ziren joan den ostiralean Iñaki Astiazaran irakaslearen ardurapean. Prentsaren mundua bertatik ezagutu nahian BARREn inguruko nondik-norakoak azaldu genizkien. Ondoren, gure eguneroko jardunaren lekuko izan ziren, BARREN nola egiten dugun erakutsi baikeenien. Eta behin BARREnera etorritz gero, bada, nola ez, erretratua atera behar!




Langabetuen elkarte sortu da

Denbora luzez langabezian dauden pertsonen Elkarte, "Ascodel" izenekoa, eratu berri da Gipuzkoan. Deba Beheko langabetuak, eta Elgoibarkoak batez ere, izan dira ekimenaren bultzatzaileak. Lehen bilera asteazkenean izan zuten Kultur Etxean (argazkian) eta bertan bildu ziren gehienak desagertutako SIGMA enpresakoak ziren.

Elkarte honek 45 urtetik gorako langabetuak bildu nahi ditu batez ere, "argi dago errekonbertsio

planetan, berrindustrializazio edo berkalifikazio planetan ez gaituztela aintzat hartzen. Hortaz, 45 urteko langile kolektibo honek etorkizun beltza dauka". Adin honetatik aurrera langileek Seguritate Sozialen kotizatze ahal dutena egiten dute, "gero %60arekin bakarrik jubilatzeko". Egoera honi langile hauek duten autoestima kaxkarra gehitu behar zaio. Pairatzen duten egoera honen aurrean euren defentsarako sortu da eratu berri den *Ascodel* elkarte.



Festa do Magosto dela eta, Galiza Etxekoek 300 kilo gaztain eta 600 litro ribeiro ardo banatu zituzten joan den domekan. Iluntze euritsuari aurre egiteko gaztaina jana baino ezer hoberik ez dagoela argi geratu zen Urasandiko plazara hurreratu zen jende mordoak ikusi eta gero. Argazkian Galiza Etxekoak gaztainak erretzeko danbolina zaintzen.

Udalaren eta tabernarien arteko bilera

Azken aldian herritar askoren kezak jaso izan dira Udaletxean larunbat gauetan taberna inguruetan sortzen diren zaratak direla-eta. Udalak tabernariekin bilera egin zuen astearte goizean arazoari konponbide bat topatzeko. Udalaren aldetik Guillermo Garate alkatea, Oñederra udaltzainen sarjentua eta idazkaria egon ziren eta mahaiaren beste aldean, tabernariak. Azken hauek batek esandakoaren arabera, "Udalaren aldetik oso jarrera ona ikusi dugu. Taberna gainetan bizi diren pertsonen keza asko jaso direnez, bronka moduko zerbait entzutea espero genuen baina aitzitik, alternatibak bilatzeko gogoia ikusi duen". Alternatiba horiek zein izan daitezkeen asmatzean dago gakoak. Zenbait tabernari ixteko ordua luzatzearen alde agertu ziren, goizaldeko 3,30etan itxi beharrean 4,30etan ixtea, baina proposamen honek ez zuen onespenez izan. Beste soluziobideak izango liriteke, goizaldeko ordu txikitzen musikaren bolumena jaiste, atek itxita edukitzea eta hori guztia errespetatzeko Udaltzaingoaren presentzia egotea.

Hildakoen hustuketa

Udaleko Ongizate Saitetik adierazi digutenez, duela 10 urte okupatutako hilibien erabilpen epea aurten amaitzen da. Datozen egunotan 1986an hildako guztien gorputz hondakinak hilibietatik aterako dira. Gaiari buruz berri gehiago nahi izanez gero, Udal bulegoetara zuzendu.

Santa Anako errotonda asfaltatu egin da

Santa Anako errotondaren alde bakarra asfaltatuta zegoen arren, beste aldeak ere beharrezkoa zuela berriz asfaltatzea ikusi du Udalak, denbora honetan batxeak sortu baitira. Txankakua zubiko bidegurutzeari asfaltatu behar zutela aprobetxatuz, Santa Anako errotondarekin gauza bera egitea erabaki zen. Guztira, 700.000 pta.ko kostua dauka. Bi astetan, beharrezko seinaleak jartzeari espero da.

Joseba Alonso:

“San Lorentzo Euskal Herriko auzorik onena da”

Duela 40 urte jaio zen elgoibartar hau tornularia da ofizioz, baina gure artera ekarri badugu, ez da bere lanagatik izan, duen afizioa dela medio baizik. Elgoibartar askok ezagutu du harmonika jotzen, izan ere, musika da

duen zaletasun nagusia. Baina ezin uka dezakegu bilarrean jokatzeko ere gustuko duenik. Beste zenbaitek bere jantzi eta ilaje bereziagatik du ezagun. Beraz, askorentzat pertsonaia ezaguna bada ere, gehiago jakin nahian jo dugu beragana.

– Noiztik jotzen duzu harmonika?


– Duela 24 urtetik edo. Gainera beti belarriz ikasi dut, ez baitut inoiz solfeoko klaserik jaso. Soinua barnetik ateratzen den zerbait da; bihotzarekin, sabelarekin, mingainarekin, masailezurrarekin egiten den zerbait. Horrela bada, harmonika da jotzen dudako instrumentu bakarra. Baina, nik beti esan dut hobe dela musika tresna bakar bat ongi jotzea, bost gaizki baino. Dena den, badaukat saxofoia jotzen ikasi ez izanaren damua.

– Zenbat denbora darazazu Koska taldean?

– Lau bat urte. Hala ere, Koskak alde batetik erromerietarako kantuak ditu eta bestetik nik beraiekin jotzen ditudanak daude. Baina nik talde askorekin jo izan dut, askotan kontzertuak entzuterako joan eta jendeak animatuta. Horrela jo dut esaterako Naco Goñirekin, Platero y tu-rekin, Ttakunekin... eta Elgoibarren egon diren ia talde guztiekin. Bodeetan ere, ezagutzen ez ditudan zenbait talderekin.

– Zure burua hippyztat al daukazu?

– Bakoitza den beza-



“Nire ametsa Californiara Blues bat jotzera joatea da”

lakoia da eta niri mugimendu hori gustatu zaidanez bertan kokatu naiz eta hogeitau urte pasatu arren berdin jarraitzen dut, ile luzea, jazteko era..., barnean daramadan zerbait da.

– Zein da zure bizitza filosofia?

– Lanean nagoen aldetik gizartearekiko lotura bat daukat, baina berez ez zait gustatzen gizartearen irudia islatzea. Bizitza honetan ez dago hobetu ezin den ezer, ezinezkoa da perfektua den zerbait aurkitzea.

– Egunero San Lorentzora joaten omen zara.

– Taberna baten sartuta egotea baino askoz nahiago dut. Gainera joaten naizen egun bakoitzean desberdina da, jende askorekin elkartu ohi naiz... oso paseo polita da. Nire asmoa herritik bertatik nolabait alde egitea da. Jadanik badira 12 bat urte San Lorentzora ia egunero joaten hasi nintzela. Beste mendi batzuetara joatea ere atsegin dut, baina niretzat San Lorentzo Euskal Herriko auzorik onena da, eta bertako jendea ere

oso jatorra.

– Anekdotarik?

– Lehen tabernak ixten zituztenean, elizako arkupeetara joan ohi ginen taldetxo bat eta nik harmonika jotzen nuen, beste norbaitek gitarra eta gainontzekoek abestu egiten zuten. Bertan egoten ginen munizipalek bidaltzen gintuzten arte. Ni etxera harmonika joaz joaten nintzen. Hurrengo egunean zenbaitek entzun ninduela esan ohi zidan, orain oso ezberdina da giroa.

Duela gutxi Elgoibarren Allnighters-en kontzertu baten amaieran lau harmonikako inprobisazio bat egin genuen. Entzuterako joan eta eskenatokian amaitu nuen Naco Goñi, Valentziako bere lagun bat eta Arrasateko mutil batekin batera. Inprobisatzea atsegin dut, askoren tzat gauzarik zailena dena, niri oso erraza gertatzen zait.

– Proiekturik?

– Nire ilusioa, Californiara blues bat jotzera joatea da, loteria tokatuz gero hori izango litzateke egingo nukeen lehen gauza. Baina ez dut uste amets hori egia bihurtuko denik.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Zc j c t t c m BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 25. GEHIGARRIA



Jubilatuen Astea

Elgoibarko Jubilatuen etxeak azaroaren 25ean hasi eta abenduaren 1era bitartean Jubilatuen Astea ospatuko du. Urtero bezala, aurten ere ekintza ezberdinak antolatu dituzte, besteak beste, kontzertuak, dantzaldia, txokolatada.... Hona hemen zehatz-mehatz egun horietan zehar izango dena:

AZAROA

25, ASTELEHENA

8etan, Parrokiako abesbatza

26, ASTEARTEA

5etan eta 7etan, Bideo emeraldia

27, ASTEAZKENA

5,30etan, Txokolatada
7etan, Itxaropena abesbatza

28, OSTEGUNA

5etan, Gabonetako 100 otarren zozketa
6,30etan, Inazio Bereziartua Musikeskolakoek kontzertua

29, OSTIRALA

2etan, Bazkaria eta omenaldia 80 urtetik gorakoentzat eta urrezko eztaiak betetzen dituztenentzat

30, LARUNBATA

4etan, Kina berezia

ABENDUA

1, DOMEKA

12,30etan, Meza hildako jubilatuen omenez
6etan, Dantzaldia Gelatxorekin

EGITA
RAUA

SEBASTIAN ETXABE

“Euskal barria kanteran lanerako erabiltzen zan”

Arriaga bailarako Karkizano baserrian jai zen orain dela 68 urte. Sebastian Etxabek betidanik izan du kirolerako zaletasuna. Atletismoan hasi zen, ia kasualitatez, eta euskal barra deitzen zen kirolean bere garaiko onenetariko izatera iritsi zen. Garai hartan ez zegoen gaur egungo entrenatzailerik, ez tekninarik, baina Sebastianek marka oso onak lortu zituen alor guztietan.



- Ia kasualitatez kirolean.


- Bai, Club Deportibuan debutantiak bihar zitxuela, nik gorputz haundixa nakala, probatzeko esan, jun eta pisua botatzen hasi nitzan.

- Halere, Donostian 300 m. korritu zenituen.

- Bai, probatzeko esan zien, ein eta lelengo etara naban. Triple salto ere bazuan, nik zela eitxen zan ez nakixan baina esplikau zien gitxi gora-berakua eta ein naban. Eskua jarri eta bigarren geratu nitzan, penia!

- Entrenamendurik?

- Apenas. Lerunera juten ginan. Ni baserrian bizi nitzan, Karkizaon. Akordatzen naiz zela goizian Lerunera bizikletan jun eta bazkaltzeko baserrira saltaka ixotzen nitzan. Zapatilarik ere ez zauan, abarketekin ibiltzen ginan. Halako batian Katxok esan zigun iltziak lortzen bagenduzen, berak ingo zizkigula zapatilak.



Guk tailarrian tornuakin eitxen gendun lan, iltziak ein eta Katxori eman da lortu genduzen zapatilak.

- Zer da euskal barra?

- Deporte gehixenak gerran edo lanian dake jatorrixa. Pisua, gerra epokan erabiltzen zan kainoian balia zan, jabalinia ere... “Barra Vasca”, berriz, kanteran lanerako erabiltzen zan, zuluia ein eta dinamita sartzeko.

- Zein neurri zituen?

- 3,5 kiloko pisua eta 1,5 metro luzian. Aurrian zakan lodixa bastante eta 14 mm inguruko luzia. Erdi inguruan ekilibrauta hartu, nahi beste buelta eman eta ahalik eta urrutien bota bihar zan.

- Zein distantziara?

- 42 metro pasatzen nitxun errez. Indarra eta belozidadia bihar zan. Behin, Elgoibarren in zan kanpeonato batian rekorra batidu naban baina ez zien homologau ze, orduko barrak uhertu eitxen zian eta pisatzerakuan euki bihar zabana baino gitxi ematen zaban. Gero etara zitxuen aluminiokzkuak, askoz hobiak.

- Espainiako txapelketan hirugarren geratu zinen.

- Barra Vascan bai, 1951n, Bartzelonan. Gero, Gipuzkoako kanpeonatuan lelengua geratu nitzan pentlatonian eta 100 metrotan eta bigarren deklatonian.

- Profesionalik ez zegoen?

- Ez. Guk lan eitxen genduan berandura arte, baitxa zapatuetan ere, gero baserrian igual segan ibili eta hurrengo goizian trena hartu, Club Deportibuak pagauta, eta Donostiraino pruebetara. Nekauta egoten ginan ailegau orduko baina hala ere marka onak eitxen genduzen. Salto de longitud-en 6,28 ein izan naban eta orduan rekorra 7,21 zan. Oingo deportistak askoz erretzau dake, entrenadoria, oinetako espezialak.. Oso desberdina da.

- Gipuzkoako selekzioan egon zinen.

- Bai eta harekin juten ginan Madridera, Bartzelonara, Burgosera... Selekziuak pagatzen zaban biajia, hotela eta dana... Egixa da deportiari esker bastante biajau nabala, orduan Donostira jutia ere asko zan.

- Noiz utzi zenuen?

- 1955ean, orduantxe ein naban deklatona. Gero beteranuetan hasi nitzan, azkenengoz 1991an Vigon ein naban 100 m. eta salto de longitud. 62 urte nakazen eta 100 metruak 13,7 segunduan ein nitxun. Behin, 90 kilo nitxula, salto de longituden oso marka ona ein naban eta hori 80 kilo rekomendatzen ziela eukitzia nakan alturarako, 1,80 m. Nik usten dot orduan nakan sasoiakin eta indarrakin, oin bezala preparauko balie oso ona izango nitzala.

“
B aserrira saltaka
ixotzia zan
entrenamendurik onena!
”

Zein ikasketa egitea gustatu izango zitzaitzun?

Oso gazte hasten ziren lanean euren garaian. Dirurik ez zegoen etxe askotan eta eskulan guztiak beharrezkoak ziren. Irakurtzen eta idazten ikasi zuten, eta batzuek hori ere ez. Gaur egungo gazteek, or-

dea, nahi beste aukera eta ikasketa dituzte, aspertzeko modukoak, eta lanik, aldiz, apenas. Hilabete honetan kalera jo dugu ea gaur egungo jubilatuek, ahal izanez gero, zer ikasi nahi luketen jakiteko asmoz.



Manuel Udias
57 urte

Gaztetan ez nuen aukerarik izan, gurasoak hil zitzaizkidan eta neronek atera behar izan nuen bizitza aurrera. Gaur egun beranduda, ez nago ezer ikasten hasteko baina ahal banu, mekanika gairen bat ikasiko nuke. Oraingo gazteak oso ondo prestatuak daude gure ondoan. Ikastea beti da aberasgarria.

Gaztetan ez nuen aukerarik izan, gurasoak hil zitzaizkidan eta neronek atera behar izan nuen bizitza aurrera. Gaur egun beranduda, ez nago ezer ikasten hasteko baina ahal banu, mekanika gairen bat ikasiko nuke. Oraingo gazteak oso ondo prestatuak daude gure ondoan. Ikastea beti da aberasgarria.



Kontxita Tapia
78 urte

Gure sasoiari 12 urtera arte edo ikasi eta gero lanera jun bihar izaten ginan. Oin burua ez dauka guk argi ezer ikasten hasteko baina ahal izanez gero, ministro

izateko edo, ahalik eta kargarik haundixena! Zenbat eta gehixo ikasi orduan eta hobeto.



Eusebia Lizundia
67 urte

Txikitari eskolan ibilitzan gerria hasi zan arte. Nik sekula ez dot planteatu ere egin zer ikasiko naban aukeria eukitza, burutik ez jata pasatu ere ein. Gure

aukera bakarra etxekoandria izatia zan eta holaxe jun jata neri bizimodua.



Domingo García
70 urte

10 urtera arte ikasi nuen eta adin horrekin lanean hasi beharra izan nuen. Ez nuen aukerarik izan beste ezer-

tarako. Halere, nere kontura liburuak begiratzen ditut eta geografia asko gustatzen zait, mapak begiratzea, atlasak...



Alejandro Pascual
64 urte

8 urtera arte ikasi nuen eta gero lanera, baserrira, asko zegoen egiteko eta. Asko gustatuko zitzaidan ikastea, gutxienez batxi-

lergoa egitea eta lanbidez, eskola maisua izatea izango litzateke nere ilusioa. Dena dela, 40 urtetik gora daramat herri honetan eta ezin naiz kexatu, beti izan dut lana.



Dantza egiteak gaztetu egiten du

Urteek aurrera egiten duten neurrian oso garrantzitsua da bizitza ahalik eta normalena egiten jarraitzea. Elikadura orekatua mantendu behar da, jarraia baikorra etorkizunari begira, oraina biziz, bizitza sexual normal eta osasuntsu batekin eta, batez ere, gorputza eta burua egoera onean mantenduz. Hauek guztiak lortzeko hainbat gauza egin daitezke eta, dantza, horietariko bat da. Besteak beste, ondoko onurak dakartza dantzak:

- Zahartze biologikoa atzeratzen du.
- Odolaren zirkulazioa hobetzen du.
- Arnasketa ahalmena hobetzen du.
- Esfortzu ahalmena handitzen du.
- Koordinazioa, oreka, stabilitatea eta agilitatea handitzen ditu.
- Pisua mantentzen laguntzen du.
- Estresa eta tentsioa jaisten ditu.
- Giza harremanak errazten ditu.
- Nork bere buruari buruz duen irudia hobetzen du.
- Oreka emozional eta afektiboa hobetzen ditu.

Azken batean bizitzeko poza eta ilusioa ematen du dantzak. Gainera, edozein toki eta girotan egin daitezkeen ariketa fisikoa da. Bidaia agen-

tziek irteera eta egonaldiak antolatzen dituztenean beti izaten ditzuzte kontuan dantza saioak, Elgoibarko Jubilatuen Etxean ere igandero izaten da... Gainera, gorputzaren bidez besteekin komunikatzen gara eta nagusiek oso beharrezkoa dute, kontuan izanik euren garaian gorputzarekin sentimenduak komunikatzea debekatua zutela, bekatua zela eta dantza zela baimenduta zuten gauza bakarra, nahiz eta zenbait tokitan elkarrekin dantza egitea debekatua egon.

Gainera, musikak sentimendu oso onak sortzen ditu jendearengan eta askoz errazagoa egiten zaie ariketa fisikoa egitea edozein musikaz lagunduz. Musika suabe batek erlaxatu egi-

ten gaitu eta bizkorrago baten bestelako eragina sortzen du. Guztiak onak. Musikari esker, oroimena egoera onean mantentzea lortzen da, pausoak eta oroitzapenak uztartzen baititugu.

Dena dela, kontuan izan behar dira gustuak, eta bakoitzak bere estiloaren eta egoera fisikoaaren arabera musika aukeratu behar du.



UMICIF g
UCIUCP



ADORACION YERRO

Sagar flana

OSAGAIK

350 gramo edo 4 goilarakada esne kondentsatua. Kilo inguru golden sagar. 5 arraultza eta bi goilarakada azukre karameloa egiteko.

PRESTAKETA

Lehenik eta behin sagarrak 15 minutuz egosi egin behar dira eta gero txiki-txiki egin, pure egin arte. Gainontzeko osagai guztiak nahastu eta eta azukrearekin bustitako flan-ontzi batean sartu. Labara sartu bainu marian eta bertan utzi egin arte.

Martin Sanchez

Goxo
gozotokikoa



- **Zer dute haurrek helduek ez dutena?** ▶ Inozentzia.
- **Zure bizitzako unerik gozoena?**
▶ Nire umeak jaio zirenean.
- **Nongo palmerapean egon nahi zenuke?** ▶ Irla bakartiren batean.
- **Txokolatzeko palmera ala solomo ogitartekoa?**
▶ Solomo ogitartekoa.
- **Noren ipurdipean jarriko zenuke txikle bat?**
▶ Ez naiz hain pertsona gaiztoa.
- **Nora joango zinateke globoz?** ▶ Munduari bira ematera.
- **Coca-Cola ala Pepsi?** ▶ Edozein.
- **Zein gairi buruzko kromoak bilduko zenituzke gustura?**
▶ Futbolekoak, nahiz eta oso ikusiak dauden.
- **Etsaiari urik ez eta polboroiak desertuan?**
▶ Etsaiari kombertsaziorik ez.
- **Erroskilak ala Erregetako roskaia?**
▶ Erroskilak, maizago jan daitezke eta.
- **Zer oihukatuko zenuke Piruli-aren gainetik?** ▶ Amaaa!!!!
- **Tarta bat?** ▶ Selva negra.
- **Berriro umea izango bazina?**
▶ Elektronika ikastea gustatuko litzaidake.
- **Zure bihotzeko azukre koxkorra?** ▶ Nire emaztea.
- **Marrazki bizidunak atsegin dituzu?** ▶ Bai, bereziki Dragoi Bola.
- **Epi ala Blas?** ▶ Epi, majoagoa delako.
- **Zein "onda"tan egon nahi zenuke?**
▶ Eskulanetan trebea izan nahi nuke.
- **Kanikak ala bideo jokoak?** ▶ Bideo jokoak.
- **Oheratu aurretik esnerik edaten al duzu?** ▶ Bai, kafearekin.
- **Zenbatero garbitzen dituzu haginak?**
▶ Ispilura begiraten naizen bakoitzean, hau da, oso gutxitan.

AMAIA GOROSTIZA

Xalbadorren omenez

DOINUA:

Ama Euskal Herriaz nahigabetua

Odolaren bor-borra
mintzo bilakatu.
Hartaz ohartu eta
eleak unatu.
Harexen aditzera
hainbat goraiatu.
Azken ahapaldia
zitzauzun ukatu.

Ixil dituzu orai
Aldudeko urak.
Azkartuko dituzu
kintoko elurrak.
Eguzkitan bustiko
udaste eta udak.
Elkarrenganatuko
Nafarrako mugak.



JON BARANDIARAN



 ZURE HAURARENTZAKO
PRODUKTUEN BANATZAILEA
EUSKAL HERRIAN:
- Kotxeak eta sehaskak
- Sehaskatxoak eta osagarriak
BAMBINO
Euzko kalea 3
20 69 93
EIBAR
DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04

**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

Zorra %15ean gutxitzea espero du Udalak 96an


Herri Kontuen Euskal Epaitegiak atera berri duen txosten batek dioenez, Elgoibarko Udalaren egoera ekonomikoa "oso delikatu" da. 1994ko datuen arabera, aurrekontua 1.162 milioikoa zen eta zorra 1.215 milioi pta.koa, hau da, aurrekontuaren %104,63a.

Isaac Loiola, EAJko zinegotzi eta Haziendaburu denak azaldu duenez, "zorren kopurua ulertzeko, garai hartan egin ziren inbertsioak hartu behar dira kontuan. Izan ere, Mintxeta egiteak 400 milioiko kostua izan zuen, Herriko Antzokiak 115 milioi, San Lazarok 112 milioi eta abar". Gaur egun elgoibartarrok ditugun zerbitzu horiek guztiek gastu handia suposatu zuten, aurrekontuak ematen zuena baino altuagoa izanik. Horregatik, aurrezki kutxengana jo behar izan zuen Udalak maileguen eske, "gaur egun dagoen zorra ordaintzeko epe bat daukagu, etxebizitza bat erosterakoan jartzen duten pres-

tamo hipotekario batek bezala funtzionatzen du". Dena dela, Loiolaren hitzetan, "ez da egia topera iritsi geranik. %20,4ko zorrak dauzkagu eta topia %25ekua da. Ondiok kapazidadia badakagu".

1996an 202 milioi kendu

1996ko aurrekontuen arabera, asmoa zor horietatik 202 milioi kentzea da, %15a, interesak eta amortizazioa kontuan izanik "eta momentuz badirudi helburuak betetzen ari gerala. 1995. urtiran zorra 1340 milioikua zan. Espero degu 1.138 milioira jaitia. Gainera, gure asmuak goitxik botata zeuden eta zela interesak bajau dian gure alde etara da. Guk diru edo alde hori beste zezertarako erabili biharrin, amortizazioa gehitzeko era-



Isaac Loiola, Haziendaburua.

bili dou eta zorra bajatze-ko".

Datozen urteak, beraz, inbertsio handirik gabekoa izango dira, "urtarrilian ere esan gendun hori. Gastuak kontrolau bihar dia, subentziuak ahal dian neurrian gutxitu, inbertsio handirik ez ein...". Horrek ez du esan nahi zerbitzu aldetik kalitatea gutxitu egingo denik, "mantendu egingo dira, kontrolatu behar dena gastu korrientea da".

Isaaken ustez egoera honen eran-tzuleak bilatzen hasteak ez du zentzurik, "azken finian, garai hartan egin zian inbertsio haiek hala tokatu zalako eta oin elgoibartar guztiok zerbitzu horiek ditugu. Beharbada beste udaletxe bat-

zuen egoera ekonomikua hobia izango da baina ez debe hainbeste zerbitzu eukiko".

Kontratazio eta adjudikazio irregularrak

Txostenaren arabera, hainbat kontratazio eta adjudikazio irregular ikusi ziren 1994an. Isaakek adierazi duenez, "gu saiatu gara irregularidade horiek zuzentzen. Ez dau esan nahi lehen egon zianak gauzak gaizki egin zitxuenik, funtzionatzeko beste era bat zan". Hazienda buruaren esanetan, "egunkariak egoera oso delikatu zela esaten zuen, nik delikatu dela esango nuke. Argi dagoena da, gure lana inbertsio txikiak egin eta zorrak ahal den neurrian kentzea izango dela". Loiolak Udala bikote ezkonberri batekin partekatu zuen, "bikote batekin partekatu zuen, "erosten dabanian eta ordaintzeko prestamo bat eskatzen dabanian, irabazten daban baino gehiokoko zorra daka. Orduan, zorra ordaintzen juteko hainbat gauza alde batera laga beharko ditxu, eskiatza eta holakuak. Udaletxian egoeria berdina da".



Alzolako Torrekua (II)

■ Iparraldeko fatxadak lau ardatzetan antolatutako 15 baogune ditu. Lehenengo solairuko balkoiak eta ganbarako leiho txikiak berriak dira. Sotoko arku zorrotza duen atea eta honen alboetan dauden gezi-leihoak, eta beheko solairuko leihoa eta balkoiak, ezkerreko ardatzekoa izan ezik, ostera, aintzinakoak dira. Fatxada honetan azpimarratzekoak dira arku zorrotza eta gezi leihoak ez ezik, ate honek ibairantz dituen harmailak, zirgiloa eta beheko solairuko eskuin aldeko leihoak barrutik kontserbatzen duen aintzinako jarlekua.

■ Mendebaldeko fatxada da gehien aldatu dena. Lau ardatzen inguruan 14 baogune irekitzen dira. Gaur egun ez dago harlanduzko baogunerik eta honen ordez beheko, lehenengo eta bigarrenengo solairukoak platabandez daude dekoratuak.

■ Sotoan bi ate dinteldu daude, eskubikoa barrutik arku karpnel batez eratua dagoelarik. Beheko eta lehenengo solairuetako baoguneek planteamendu berari eran-tzuten diote: alboetan leihoak daude ezkerrekoa txikiagoa izanik eta erdian lau balkoi daude, goikoa eta eskuinekoa irtenak izanik. Balkoiek burnizko baranda dute.

■ Sotoa da aldaketa gutxien jasan izan

duena. Sorreratik irauten dute arku zorrotzak, gezi-leihoak eta karrizko pilare ederrak, berant erdi arokoak direlarik. Sukaldeko zoluan arropak garbitzeko antzina-ko lixiba-harria eta zuloa kontserbatzen dira.

■ Torrekua, Alzola abizeneko familia baten dorretxea zen. Hasierrako etxea, Torrekuaren ondoan egon omen zen, XVI. menderako bere tokian baratza zegoelarik. Alzola abizena izen bereko auzoan, XV. mendeko erdi aldean ageri da Elgoibarko Udal artxiboko dokumentu zaharretan, Ecenarro jaunak dioen bezala.

■ Auzo honetan, Alzolarren leinutik adar ezberdinak sortuko dira, lonjari eta merkatari handiak izan zirelarik eta Alzola abizen bera izan zutelarik: Juan Martinez, Pedro, Francisco, Pedro Garcia, Andres, Domingo, Asensio, Bartolome eta Juan Perez.

PELLO ARRIETA



Tomas Ansola Aranberri "Mausitxa" (1903-1980)



- 1903ko apirilaren 10ean jaiotzen da San Antolineko Madarizurieta "Mausitxa" baserrian.
- Sei anai-arrebetatik bigarrena zen. Arreba nagusiaren heriotzaren ostean baserriko maiorazgoa hartu zuen, hango ardurak bere gain hartuaz.
- 24 urte zituela Markinako "Garotxiki" baserriko Mari Karmen Juaristirekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten; bat 7 urterekin hil zen gaixotuta.
- Familia aurrera ateratzeko era guztietako lanak egiteko prestu zegoen gizona zen: auzoko albaitaria, matorifea, Mutrikuko depositoaren erakuntzan ere lan egin zuen astoarekin materiala jasotzen, etab.
- Gaur egun "Mausitxa"ko gaztek duten ospea eta fama berari zor zaio, berak egin baitzituen lehenengo gaztak.
- Giza artekoa, sinesmen handikoa eta oso ezaguna zen herrian. Herri kirolak eta esku pilota gustatzen zitzaizkion.
- 1974ko maiatzaren 3an hil zen.

JUANITO GOROSTIZA

Familiakoren bat edo lagunen bat hiltzen bazaizu BARRENEk sentimenduan lagundu eta eskelak, urteurrenak edo esker onak azaltzeko toki bat eskaintzen dizu.



MOTZAK

Promozioko Gipuzkoako Karate Txapelketa

Olaizaga Karate Taldeko Nicolas Jimenezek Altzan jokatu zen promozioko Gipuzkoako Karate Txapelketan parte hartu zuen joan den domekan eta zilarrezko domina eskuratu. Momentuz gerriko urdina daukan arren, laster aterako du marroia. Era berean, hil bukaeran izango den Gipuzkoako Karate Txapelketa ofizialean parte hartuko du eta emaitza bera eskuratzuz gero, Euskadiko Txapelketarako sailkatzea lortuko du.

Mintxeta Atletismo Taldekoen emaitzak

Mintxeta Atletismo Taldeko benjamin-aurreko, benjaminetako, alebinetako eta infantiletako neska-mutilek Iurretako krozean parte hartu zuten joan den domekan. 17 ordezkari izan zituen Mintxeta taldeak, eta lortutako postuen artetik hauek dira aipagarrienak: Alberto Cardaba lehena eta Lander Azpiazu bigarrena benjamin-aurreko mailan. Benjaminean Esther Bilbatua laugarren postuan iritsi zen. Alebinetan Ana Etxanizek lasterketa irabazi egin zuen eta Alaitz Merino laugarren izan zen. Kategoria honetan, baina mutiletan, Javier Ausinen 5. postua da aipagarriena. Azkenik infantiletan bi korrikalarik baino ez zuten parte hartu: Angel Quintanak, 7. lekua lortu zuen, eta Izaskun Moreda, 12.a izan zen. Datorren domekan, hilak 24, Irungo krozean arituko dira Mintxetako neska-mutirik.



Iñigo Arriola:

"Arrasateko eskubaloian asko ikasi dut"

■ **Betiko kirola izan da eskubaloia?** - Bai, 17 urte daramatzat jokatzen. Eskolan atezainik ez zegoenez, ni izendatu ninduten. Kadeteetan geundela Eibarko txapelketa bat irabazi genuen eta Arratekoak ni eramatekotan zeudela jakin nuen baina azkenean beste bat hartu zuten.


■ **Elgoibarko seniorretan zenbat denboraldi?** - Eskolatik Institututoko taldera pasatu nintzen eta seniorren taldea atera zenean bi denboraldi egin nituen bertan. Taldea desagertu egin zen eta Arrasatera joan nintzen.

■ **Arrasateko oroitzapenak?** - Onak dira. Asko ikasi nuen. Entrenatzailea ona zen, asko zekien eta orduan mejoratu nuen nik batez ere. Bi urte egin nituen bertan, igoera ere eskuartearen izan genuen baina azkenean kale. Duela bi urte Elgoibarrera etorri nintzen seniorrekin jokatzeko.

■ **Iaz, baina, Arratetik deitu zintuzten.** - Elgoibarren nahiko ondo genbiltzan ligan. Igoerarako lauzpabost partidu zail jokatu ondoren Arratera joan nintzen.

■ **Aurten bigarren denboraldia?** - Bai, 2. taldean nago. Iaz denok batera entrenatzen genuen baina aurten ez. Orain atezain gutxi dago Arraten eta agian ekipo nagusirako deituko nautela komentatu didate.

■ **Kolpe handienak jasotzen dituen da**



atezaina, ez? - Aurrez aurreko kolpe-rik ez, baina baloi-jaurtiketa guztiak zure gorputzarekin geratu behar dituzunez... baloikada izugarriak hartzen dira.

■ **Lesiorik ere gerta daiteke?** - Gertatzekotan ukalondoan, besoa luze-luze daukzula baloia geratzen. Bestelako lesioak ere izaten dira. Arrasaten nengoela orkatilean zaintiratu izan nuen. Sendatzeaz neukala beroketa saio batean baloi bat zapaldu eta zaintiratu are larriagoa egin nuen. Orain begiratu egiten dut pausoa eman aurretik.

■ **Eibar eta Elgoibar. Alderik bai?** - Eibarren beste planteamendu bat dute, lehen ekipoan entrenamenduak oso serioak dira. Jokatzeke modua ere ezberdina; entrenatzaile atzeritarra eta jokalaria oso onak dituzte. Gehienak oso gazteak dira. Erdi-profesionalak direla esan daiteke. Afizio aldetik gauzak berdin daude.

■ **Gogoan duzun garaipen bat?** - Arrasaten, liga irabazteko jokatu genuen partidua. Igoerarako txartela ere jokoan zegoen eta azkenean gol baten aldeaz irabazi genuen.

• Adina: 27
• Jokalari bat?
Bartzelonako atezaina izandakoa, Lorenzo Rico
• Beste kirol bat?
Txirrindularitza eta motorra

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

gR **Goki eRreformat, s.l.**
ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN
DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

47 elgoibartar Behobia-Donostian

Aurten 11.000 izan dira Behobia-Donostia korritu dutenak, horietatik 47 elgoibartarrak, Fortunakoen sailkapenaren arabera. Iñaki Konde elgoibartarrak, lasterketa egunean bertan komentatu zuen, duela urte batzuk, berak korritu zuen lehenengo aldie-tariko batean, 700 lagunek hartu

zuela parte. Domekan 11.000 elkartu ziren. Elgoibartarren presentzia gero eta nabarmenagoa da Behobia-Donostia lasterketan. Aurten gainera, Udal Kirol Patronatuak autobusa antolatu du gero eta jende gehiago joaten dela ikusita. Autobusean joan ziren 20 lagunetik gorakoei autoetan bidaiatu zutenak gehitu behar.



Hona hemen Udalak antolatutako autobusean joan ziren lasterkari elgoibartarrak.

ELGOIBARTARREN SAILKAPENA

| IZENA | Denbora - Postua/ Kategoria | IZENA | Denbora - Postua/ Kategoria |
|----------------------------|-----------------------------|--------------------------|-----------------------------|
| * 1- Iñaki Jaio | 1:10:31 (42 C) | 23- Francisco Iglesias | 1:45:14 (223 F) |
| 2- Jose Antonio Ruiz | 1:10:45 (34 B) | 24- Alex Aranzabal | 1:46:04 (1634 B) |
| 3- Iñaki Konde | 1:15:25 (14 E) | 25- Eduardo Santos | 1:46:05 (2116 C) |
| 4- Tomas Arrieta | 1:19:04 (171 B) | 26- Pilar de La Lama | 1:46:21 (42 M) |
| 5- Iñaki Andonegi | 1:22:34 (396 C) | 27- Unai Argarate | 1:46:38 (1646 B) |
| 6- Imanol Larrañaga | 1:23:05 (417 C) | 28- Mikel Arriola | 1:46:39 (272 A) |
| 7- Javier Fdez. de La Lama | 1:23:20 (17 A) | 29- Iñigo Ansola | 1:47:57 (2242 C) |
| 8- Iñigo Etxaniz | 1:27:25 (672 C) | 30- Jose Inazio Izagirre | 1:48:52 (2308 C) |
| 9- Ignacio Pérez | 1:28:56 (246 D) | 31- Izaskun Estibariz | 1:48:53 (50 M) |
| 10- Juan Carlos Raña | 1:30:18 (887 C) | 32- Eduardo Castillo | 1:50:43 (1814 B) |
| 11- Imanol Kapanaga | 1:31:37 (774 B) | 33- Mikel Parada | 1:50:43 (1815 B) |
| 12- Pilar Arriola | 1:31:47 (20 K) | 34- Aitor Zubiaurre | 1:51:19 (1834 B) |
| 13- Asier Arrieta | 1:32:34 (832 B) | 35- Eduardo Uribe | 1:51:23 (2452 C) |
| 14- Francisco Frías | 1:32:39 (343 D) | 36- Iñasio Garmendia | 1:52:14 (675 E) |
| 15- Alex Legorburu | 1:34:41 (956 B) | 37- Andres Alberdi | 1:52:14 (676 E) |
| 16- Iñaki Gorosabel | 1:35:26 (1002 B) | 38- Iker Leonardo | 1:54:08 (313 A) |
| 17- Arkaitz Irureta | 1:37:05 (132 A) | 39- Aitor Zubiaurre | 1:54:10 (314 A) |
| 18- Jesus M. Lersundi | 1:37:35 (1459 C) | 40- Enrique Antxustegi | 1:54:50 (2606 C) |
| 19- L. Fernando Arosa | 1:44:09 (1972 C) | 41- Felix Ezkurra | 1:56:11 (1969 B) |
| 20- Xabier Arriola | 1:44:28 (1995 C) | 42- Javier Agirrebeña | 1:58:45 (2753 C) |
| 21- Jon Gurrutxaga | 1:44:46 (244 A) | 43- Ramses La Hoz | 2:00:58 (2050 B) |
| 22- Aitzol Garmendia | 1:44:47 (245 A) | 44- Lourdes Zubiaurre | 2:04:25 (63 N) |

* Jesus Larrañagak Jaioaren izenarekin egin zuen saltaka.

TAULAN FALTA DIRENAK: Arrate Zubia, Anton Izagirre eta Jose Luis Eguren.

Futbola

Elgoibar 4 - Eibar 6 (Beteranoak)

Haundi 1 - Touring 2

Lasarte Oria 2 - Elgoibar 0 (1. erreg.)

Zestua 4 - Pedrusko 3 (2. erreg.)

Oiartzun 1 - Elgoibar 4 (Kadeteak)

Elgoibar 2 - Tolosa 4 (Infantilak)

Antzuola 3 - Elgoibar 1 (2. jubenilak)

Aloña Mendi 3 - Elgoibar 1 (Neskak)

Beti Ona 1 - Elgoibar 1 (1. jubenilak)

Saskibaloia

Kevian Sport 58 - Elgoibar 44

Eskubaloia

Unceta Elgoibar 25 - Bergara 14 (Kad. nesk.)

Leizaran 17 - Pneumax Elgoibar 40 (kad. mut.)

Urola 8 - Pagoaga Elg. 30 (Jub. neskak)

Tecnomeka Elg. 40 - Leizaran 20 (Jub. mut.)

Hondarribi 30 - Hyunday Elg. 22 (Seniorrak)

Areto Futbola

Elgoibar 3 - C. Extremeño 3 (1. maila.)

Elgoibar 6 - Patxaran La Navarra 3 (autonomicoa)

Futbitoa

Bokordo&Bofino 1 - Orbela 8

Berrogei Duro 4 - Spartak 1

Aurten Bai 3 - Kunta Kinte 12

Zazpi 2 - Udaberri 1

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 16

12,00 Elgoibar - Aurrera (Kadeteak)

15,15 Pedrusko - Gazteak (2. erreg.)

17,00 Elgoibar - Muniñe (1. erreg.)

18,45 Urki A - Soraluze (2. erreg.)

Igandea, 17

10,00 Urki B - Lagun Onak (2. jub.)

12,00 Elgoibar - Gazteak (2. jubenilak)

13,45 Eibartarrak - Beti Sutan (2. erreg.)

15,30 Elgoibar - Antoniano (Neskak)

17,15 Elgoibar - Añorga (Jubenilak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 16

16,00 Pagoaga Elgoibar - Usurbil (Jub. nesk.)

17,30 Hyundai Elg. - Urnieta (Seniorrak)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 16

19,00 Elgoibar - Lazkao

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 15

22,10 Elgoibar F. S. - Astilleru (1. maila)

23,10 Elgoibar F. S. - Bar Egoki (Autonomikoa)

Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 17 (Arbitraia: Orbela)

10,00 Maser - Ikus Optika

10,00 Kosakos - Menisco

11,00 Sanroketarrak - Spartak Braga

12,00 Aldavas - PSK

KARAKATERA III. IGOERA

Oinez eta saltaka igotzeko frogak egongo dira

Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaikok Karakatera Igoeraren edizio berria antolatu dute. Jakina da edonork ezin duela igo Karakatera saltaka. Sasoian egon behar da, egon ere. Karakateko malden gogortasuna ikusita, urtetik urtera, gero eta gehiago joan da espezializatzen lasterketa, gero eta elitistago bihurtzen. Hori dela eta, antolatzaileek lasterketari ikutu herrikoia eman nahi izan diote aurten, jendea partehartzera animatuz. Horregatik bi lasterketa, edo hobe esan, bi igoera antolatu dira.

Bat, goizeko 10,30etan hasiko da, oinezkoentzat, eta bestea, 11etan, saltakariarentzat. Iñaki Konderen esanetan, "Behobia-Donostian bezala, batzuek lasterketa ordubetea egiten dute eta beste batzuek bi ordutan. Karakatera igoeran berdin, batzuek korrika igotzeko kapazitatea izan arren, beste batzuek oinez igotzea nahiago dute. Aurten 20 bat lagunek




Karakatera denborarik txikienean igo direnak: 1995ean Aldai eibartarra 30'50"tan eta Fdez. Suso elgoibartarra 31'03"tan. 1994an

parte hartuko duela uste dugu eta oinez igoko den talde majo bat elkartzea espero dugu".

Partehartzaile guztiek 10,30etarako egon beharko dute Plaza Handian.

Sariak denentzat

Esan bezala, lasterketa herrikoia izatea da antolatzaileen helburua. Horretarako ahaleginetan dabilta, behintzat. Elgoibarko korrikalariak ezezik, ingurukoak ere izango dira eta amaieran denei



banatuko zaie saria.

Nesken partaidetza

Orain arte sekula ez da emakumezkoen animatu Karakatera igotzera. "Inportantea da neskak ere egotea, momentuz Pilar Arriolak igoko dabala esan digu eta besteren bat ere animatzea nahiko genuke".

Lasterketa amaieran autoz jais-teko aukera izango da. Antolatzaileek lasterketan parte hartzera zein ikusle bezala tontorrera igotzera animatu nahi ditu herritarrak.

• KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK •



Elgoibar eta Eibar futbol taldeetan

jokatu duten beteranoak berriz elkartu ziren joan den zapatu eguerdian Errotatzok eskatuta, Mintxetako zelaian futbol partidu bat jokatzeko. Lehen zatian elgoibartarrak 3 eta 2 irabazten bazihoazen ere, azkenean eibartarrak nagusitu ziren bi golen aldearekin, 4 eta 6 irabaziz.

Elgoibar, 650. urtebetetzea ospatzeko prest

Elgoibartar gehienok dakigu aurten Elgoibar sortu zeneko 650. urteurrena betetzen dela. 1346. urteko abenduaren 20an Elgoibarko Hiri Gutunaren aldarrikapena egin zen. Alfonso XI.a Erregeak harresiz inguratutako hiria eraikitzeko baimena jasotzen zen Gutunean.

650 urte pasatu dira harrezkeroztik. Elgoibar asko aldatu da eta bilakaera hori jasotzen duen bideo-dokumentu bat egiteko enkarua luzatu dio Udalak Donostiako enpresa bati. Datorren ostegunean aurkeztuko da bideoa Kultur Etxean.

Hitzaldiak eta liburu aurkezpena

Urtean zehar 650. urteurrena dela-eta zenbait ekitaldi burutu diren arren, azken hilabetea eta abenduaren 20ko data bitarteko epea abiapuntuatzat hartu du Udalak saioak antolatzeko. Koldo Lizarralde hainbat ekitaldi burutzeko asmoa aurkeztu zion Kultura Batzordeari. "Hainbat hitzaldi ziren, sei edo zortzi proposatu nituen nik, baina horietatik lau aukeratu zituzten eurek". Datorren astetik aurrera izango diren hitzaldiez gain, beste saio batzuk ere antolatzea erabaki zuen Udalak, besteak beste, Elgoibarki buruzko bideoa eta jaiei buruzko liburua, Udalak Koldo Lizarralderi egiteko eskatu ziona.

Bideoaren aurkezpena

Donostiako bideo-produktora batek grabatutako Elgoibarko irudi, argazki zahar eta beste zenbait dokumentu grafikoz osatua dago bideoa. Hitzaldiak bezala, Koldo Lizarralde proposatutakoa da bideoa egitea. 20 bat minututan Elgoibar laburbiltzen duen guztia jasotzen du, Antxon Agirre ikerlariak egindako gidioan oinarrituta. Hurrengo ekitaldi garrantzitsua Koldok egindako liburua da. "Elgoibarko jaien bilduma bat da. Ezagutzen ez den jairik ez dut deskribitu baina hainbat gauzak izugarri harritu naute. Adibidez, zezenketak zein gogoko zituen jendeak ikusi dut



eta badakit tira-bira handiak eta juzioren bat ere izaten zirela auzotarren artean Aste Santuko prozesioaren data edo ordua zela-eta.



EKITALDIAK

noiz eta non

- * **Hilak 21.** 650. urteurreneko bideoaren aurkezpena. Gidoilaria: Antxon Agirre ikerlaria.
 - * **Hilak 28.** Jazkera Tradizionalari buruzko hitzaldia eta diapositibak. Hizlaria: Karmele Goñi (Bilboko Etnografia Museoko zuzendaria).
 - * **Abenduak 5.** Antzantza tradizionalari buruzko hitzaldia eta diapositibak. Hizlaria: Josetxo Zufiaur etnografoa.
 - * **Abenduak 12.** Ohiturak eta usadioak. Hizlaria: Antxon Agirre ikerlaria.
 - * **Abenduak 19.** Elgoibarko jaiei buruzko liburua aurkezpena. Egilea: Koldo Lizarralde
- NON:** Ekitaldi guztiak Kultur Etxean izango dira.



Jasone Osorok irabazi du Lasarteko literatur lehiaketa

Jasone Osoro BARRENEko kazetariak Lasarte-Oriako X. Ipuin lehiaketa irabazi du. Juan Kruz Igerabide, Koldo Linazasoro eta Pello Zabaletak osatutako epaimahaiak 25 urteko elgoibartar honek idatzitako "Tango" ipuina saritzea erabaki zuen. Honako hau ez da Jasonek irabazten duen lehen lehiaketa, aurretik Eibarren eta Oreretan ere saritua izan baita. Sariaren zenbatekoa 110.000 pta.koa da eta horrez gain diploma bat ere jasoko du. Banaketa azaroaren 30ean Lasarteko Kultur Etxean egingo den ekitaldi batean izango da.

Santa Zeziliaren omenezko kontzertuak

Musikari guztien zaindariaren eguna dela eta, Santa Zezilia eguna hain zuzen, datorren asteko hainbat egunean beste horrenbeste musika ekitaldi izango dira. Ostegunean, hilak 21, arratsaldeko 7etan Kultur Etxetik hasiko den kalejiraren ostean, Inazio Bereziartua musikeskolako Banda gazteak eta txistulariek kontzertua emango dute Herriko Antzokian. Ostiralean, Itxaropena abesbatzak udaletxeko arkupeetan kantatuko du 7,30etan eta larunbatean, berriz, parroki abesbatzak emango du kontzertua parrokiaren arratsaldeko 7,30etatik aurrera. Ordu berean Udal Txistulari taldearekin dantza saioa izango da udaletxeko arkupeetan. Igandeko Dultzaineroen kalejirak eta Bandaren kalejira eta kontzertuak emango die amaiera musikarien zaindariaren ospakizunei.

Gaizka Garate

“Ordenadore bat montatzia, puzzle bat eixia da”

20 urteko elgoibartar gazte hau Deustun dago *soziologia* ikasten.

Gaizka Garatek, halere, txiki-txikitatik beste afizio bat du, informatika. Gurasoek 8 urte bakarrik zituela ordenagailu bat oparitu zioten eta ordutik bere hobbyrik estimatuena du.

- Idazten ere ez zenekien eta ordenagailu bat erosi zizuten. - Bai, 8 urtekin ordenadore bat erosi zien gurasoek eta hola hasi nitzan, zer zan jakin gabe.


- Sekula ez duzu ikastororik egin. - Ez. Nere kontura ikasi dot, liburuak irakurri eta ordenadorian ordu pila bat sartuz, programak borratuz, estropizioak itxen...

- Hasieran zein erabilpen ematen zenion? - Ordenadore haura oso basikua zan, testuen prozesadore txiki bat zakan, pare bat joku... Neretzat jolas bat zan, gauza berrixak deskubritzia. Gainera, epoka hartan ondiok ez zian hainbeste ikusten. Gero, eskolako lanak eixeko asko erabili izan dot beti.

- Saltseatzea gustatzen zaizu.

- Bai, bai. Nere ordenadoria, oin dakatena, nik montau dot. Ordenadorien triapak ere badakitx nolakuak dian, dana liburutetan irakurri eta praktikan jarriz ikasi dot. Ez da ematen daban bezain zaila. Azken finian, ordenadore bat montatzia puzzle bat eixia bezelakua da. Bildurra kendu bihar jako. Gero, programetan ibiltzia, saltseatzia eta programa txikixak sortzia ere asko gustatzen jata. Oin Beasaingo lagun batzuen erlojerixarako programa txiki bat ein dot, ezer kobratu gabe, gustatzen jatalako.

- Zenbat denbora ematen duzu?



- Egunian gitxienez ordu bat eta hortik aurrera... Oso burugogorra naiz eta gauza bat ez jatanian urtetzen hor jarraitzen dot, ulertu arte. Baina sekula ez da obsesio bat izan.

- Nolatan ez duzu informatika ikasi? - Nahixao dot informatika hobby bat bezela eukitzia. Gaur egun danerako bihar dozu informatika eta nik nere kontura ikasten dot. Soziologia eixia aukeratu naban asko interesatzen jatalako. Hola, gustatzen jatazen bi gauzak landu ditzaket.

- Halere, informatikaz asko jakin arren, ez duzu titulurik. - Ez, egixa da. Badakitx aurrera begira lana topatzia nahi badot informatika mailan zaila ingo jatala titulurik ez dakatelako, baina... Bueno, oin banao ikastaro bat eixten.

- Zertaz? - Gurasoek tailer bat

daukate eta bertarako diseinu industrialari buruzko ikastaro batean nago, multimedia asuntua...

- Internet-i buruz ba al dakizu zerbait? - Tailarrian dakagu eta ibiltzen naiz saltseatzen. Oin enpresetan gero eta gehixo ari da sartzen ze kriston bentajia da esate baterako korreo informatikua. Japonen bezero bat dakan enpresa batek momentuan bidali dezake nahi dabana, baita planuak ere. Urte batzuetara danian sartuko da Internet-a.

- Lagunak egiteko ere balio al du?

- Nik Amerikako tipo bat ezagutu naban eta astero komunikatzen gera. Oin, nobixia Internet bidez topatzia gehixegizkua iruditzen jata. Horretarako, kalera urten eta tabernetan edo ahal dan tokixan ibiltzia askoz logikua da.

- Ordenadore baten bidez artea egin al daiteke? - Segun ze ulertzen da artiaz. Musikia, esate baterako, neretzat askoz hotzaua da ze, ordenadore bat sekula ez da izango instrumentu perfektu bat. Baina diseinatzeke, marrazkixak eixeko... Badaka arte puntua.

- Sekula egin al dizu faenarik?

- Behin, 40 orriko lan bat itxen nauala argixa jun zan eta dana galdu zan. Ordutik 5 minutuero gordetzeko ohixuria dakat. Dana dala, ondo eruaten gera ordenadoria eta ni.

Salerosketak

- ❖ "La Union" elkarteko bazkide akzioa salgai. Prezio onean. ☎ **74 33 46** (Jesus)
- ❖ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ **74 17 87**
- ❖ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ **74 23 13**
- ❖ Erreperiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ **74 11 29**
- ❖ SAXO TENORE BAT erosiko nuke. ☎ **74 28 53**
- ❖ Bigarren eskuko lanparadun BI SOLARIUM-ohet salgai. Prezio eta egoera onean. ☎ **74 19 23 / 74 21 82**
- ❖ 103 cm-ko BEROGAILU elektriko bat saltzen da. ☎ **74 24 57**
- ❖ EHIZARAKO ESKOPETA salgai. ☎ **74 17 20**
- ❖ AKORDEOI BAT erosiko nuke. 96 bajukoa eta piano teklatura. ☎ **74 03 01**
- ❖ FORD SCORT R-S TURBO autoa saltzen dut. SS-AG. Oso egoera onean. ☎ **74 05 14/74 15 16**
- ❖ HIRU HUSKY SIBERIAR txarkurkume saltzen ditut. ☎ **74 41 45** Javi
- ❖ ERREPIDEKO BIZIKLETA bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000 pta. ☎ **75 51 75** Javi
- ❖ LIBURU hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed. Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolezioa). ☎ **74 07 74** Igor (gauzez deitu)
- ❖ Golf GTI autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. ☎ **17 44 33**
- ❖ BIBOLIN BAT saltzen dut oso egoera onean. ☎ **74 26 35** Manuela
- ❖ REM/IEEko lehen mailako LIBURUAK erosiko nituzke. ☎ **74 12 91**
- ❖ BX-RE AUTOA saltzen dut. Egoera onean. ☎ **74 08 85**
- ❖ LOKAL BAT saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. ☎ **74 18 94/27 78 08** Angel
- ❖ TALBOT SOLARA salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ **74 30 02** (gauzez)

Lana

- ❖ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **74 30 30**
- ❖ Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **74 15 09**
- ❖ Etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko emakume behar dut. ☎ **74 06 61** (Isela)
- ❖ ARDATZA nekazal aldizkariak publizista bat behar du. Interesatuok bidali kurrikuluma: Ardatza, Simon Bolibar, 14 - 01 003 Gasteiz ☎ (945) 27 54 77
- ❖ Neska euskalduna umeak zaindu edo etxeak garbitzeko prest dago. ☎ **74 04 58**
- ❖ Emakume bat etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko prest dago. ☎ **74 36 05**
- ❖ 17 urteko neska pertsona nagusiak zainduko lituzke. Egunez edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. ☎ **74 36 38**
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ **75 62 18**

Partikularrak

- ❖ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ **74 28 02**
- ❖ Marrazketa industrial eta diedriko partikularrak ematen ditut. ☎ **74 43 98** Inaki

Etxebizitzak

- ❖ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ **74 37 41**
- ❖ Etxea salgai San Roken, Arregitorre 12. Erabili gabe. 3 logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea. ☎ **75 51 77** Tere
- ❖ Pisua salgai Erretxindi kalean. 4 gela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta gas natural berogailua ditu. ☎ **74 44 66** Arantxa
- ❖ Pisu bat behar dut alokatzeko Elgoibarren lehenbailehen. ☎ **909 22 36 27** Leire
- ❖ Pisua salgai Bernardo Ezenarro 5ean. Berogailua, 3 logela, jangela, sukaldea, komun bat eta 2 ganbara. ☎ **74 15 90**

Agurrak

- ❖ Zorionak Leire Martinez eta Laura Rodriguezi beraien urtebetzeak pasa direlako DBHko lagunen partez.
- ❖ Zorionak azaroaren 13an 4 urte beteko dituen Ander Gabi-londori bere lagun Ane, Irati eta Maiteren partez.
- ❖ Zorionak Asier Jauregiri DBHko 1. mailako bi nesken partez azaroaren 15ean 12 urte beteko dituelako.
- ❖ Zorionak Rosario Irustari azaroaren 11n urteak beteko dituelako bere familiaren partez.
- ❖ Zorionak Marisol eta Antoniori orain dela 16 urte ezkondu zirelako.
- ❖ Zorionak Mila Osorori datorenen igandean urteak beteko dituelako Jose Ramon, Marisabel eta bere iloba Joseba eta Elisabeheren partez.
- ❖ Zorionak Olaia! Zure erdiko asretoko dakizkizun lagunen partez, bihotz-bihotzez 13 urterekin amama zahar bat izatera pasa zarelako. Ongi etorria gure talde-
ra!
- ❖ Aupa Olaia! Jada 15 dira e! Sarek eta nik, Maitek, idazten dizugu zorionak emateko. Zorionak DBHko 2. mailako ikasleen partez.

Bestelakoak

- ❖ Umeen erloju bat galdu nuen Kiroldegian joan den larunbatean, hilak 9. Lorus markakoa da. ☎ **74 25 47** Aitor
- ❖ Eskusoinuak konpontzen ditut, marka eta modelu guztiak. ☎ **47 00 01** (Setatik 7etara, ostegunetan izanezik)
- ❖ Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak 18 urtetik gorako guztiei dei egin nahi die odola ematera anima daitezen, bai eta bazkide izatera ere. ☎ **74 36 39 / 74 11 90**
- ❖ Haizea emakume taldeak idazteko makina eta kalefakzio bat behar ditu. ☎ **74 32 06**
- ❖ Etxebizitza jatzeko denetik behar du Caritasek. ☎ **74 10 09 / 74 12 57**

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

- Anbuletaria:
- Larrialdiak.....461111
 - Txanda hartzeko.....743354
 - Planning-a742950
 - Alkoholiko Anonimoak..740385
 - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 - Gurutze Gorria.....743864
 - Mendaroko Ospitalea756264
 - Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua742158
- Mendaroko Udala756100
- Ongizate zerbitzua...741008
- Udaletxea741050
- Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

- Caritas741009
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kiroldegia74 4415
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia743525
- Musika Eskola742145
- Mintxeta744315
- Parrokia740842
- Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola74 08 79
- I.M.H.74 41 32
- Institutua74 02 67
- Ikastola74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco74 40 73
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia74 34 74

15 OSTIRALA

22,15 ZINE KLUBA

“Vivir rodando”

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

16 LARUNBATA

10,30 KARAKATERA IGOERA

✓ Irteera Plaza Handitik

Antolatzaileak: Urgazi Triathloi Taldea eta Morkaiko

16,30 ZINEA

“Abajo el periscopio”

19,30-22,15 ZINEA “Eraser”

17 IGANDEA

16,30 ZINEA

“Abajo el periscopio”

19,30-22,15 ZINEA “Eraser”

18 ASTELEHENA

22,15 ZINEA “Eraser”

20 ASTEAZKENA

17,30 IPUIN KONTALARIA

Kontalaria: Emeren Gelbenzu
6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat

✓ Udal Liburutegian

21 OSTEGUNA

17,00 HITZALDIA

Gaia: “Bi emakume Turkiatik Birmaniara bizikletaz”

✓ Kultur Etxean

Antolatzailea: Kutxa Fundazioa

19,00 650. URTEURRENEKO BIDEOAREN AURKEZPENA

✓ Kultur Etxean

19,00 MUSIKAESKOLAKO BANDA ETA TXISTULARIEN KALEJIRA

19,45 MUSIKAESKOLAKO BANDA ETA TXISTULARIEN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

22,15 ZINE KLUBA “Fargo”

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

22 OSTIRALA

19,00 EKAIN PROIEKTUAREN ERAKUSKETA

✓ Kultur Etxean

19,30 ITXAROPENA

ABESBATZAREN KONTZERTUA

✓ Udal arkupeetan

22,15 ZINEA “Fargo”

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

txandak

FARMAZIAK:

| DATA | EGUNEZ | GAUEZ |
|-----------------|------------|------------|
| 16, larunbata: | Ormazabal | Ormazabal |
| 17, igandea: | Ormazabal | Ormazabal |
| 18, astelehena: | Bidasolo | Bidasolol |
| 19, asteartea: | Bidasolo | Bidasolol |
| 20, asteazkena: | Bidasolo | Bidasolol |
| 21, osteguna: | Bidasolo | Bidasolol |
| 22, ostirala: | Etxeberria | Etxeberria |

OKINDEGIA:

17, igandea: Eizagirre

ZineA

Eraser

Zuzendaria: Charles Russell
Antzezleak: Arnold Schwarzenegger, Vanesa Williams, James Coburn.

Lekukoen Babeserako Programa dela medio, eliteko agente federal batek emakume baten bizia zaindu behar du. Emakumeak EEBBetako defentsarako materiala fabrikatzen duen enpresa garrantzitsu batean lan egiten du eta bertan egindako armarik sofistikatuena ero baten eskuetara iristen da. Schwazenegger-en eginbeharra justiziaren alde lan egitea izango da.



ONGARRI zine kluba

Fargo

Zuzendaria: Joel Cohen
Antzezleak: William H. Macy, Steve Buscemi, Peter Storemare.

Enkarguz lan egiten duen matoi batek, auto lasterketarako txapel-dun baten emaztea bahitzeko agindua jasoko du. Bahitzeko agindua eman duena senarra bera da, emaztearen aitari eskatutako erreskateari esker, diru arazo guztiak konponduko zaizkiola pentsatzen baitu. Aitak zerbait susmatzen du eta bere suina ez zaio irudituko diru trukea egiteko pertsonarik aproposena.



GREMIOEN GIDA

AROSZTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Ubitarte, 2
☎ 74 13 33

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

Gremioen gida honetan
azaldu
nahi baduzu, deitu !

☎ 74 37 04

ITYRGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.
Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

PINTYRAK

FERMIN

Urasandi, 57-3
☎ 74 39 91
☎ 909 76 28 80

ISOLAMENDYAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

IGELTSERITZA

KIDEOK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ 989 58 37 61

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5
☎ 908 31 96 42

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
☎ 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76



Kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena

HYUNDAI COUPE BERRIA 2.645.000 pta.



HYUNDAI

MENDARO AUTOAK

DONOSTIA

Zumalakarregi, 1
Tel. 31 22 00

ELGOIBAR

Olaso, 27
Tel. 74 32 00

EIBAR

Otaola, 27
Tel. 70 13 82

GIPUZKOARAKO BANATZAILE OFIZIALAK